



FEMINISMOA, EKOLOGIA ETA DESAZKUNDEA

LOGIKA BERRIAK ETA JAKINTZA BERRIAK,
GIZARTE-EREDU BERRIAK SORTZEKO.



TAILER BAT/HITZALDIA 3 EKITALDITAN

AURKEZPENA

Sektorearen barnean **heldutasunerako aroa hasiko dugun** unean gaude, gero eta gehiago ezagutzen ditugu geure izaera, gizarteari eskaintzen dioguna, eta egituraketa eta aitorten maila areagotzen ditugu; horrela, geure jardunbidearen bitartez eragin soziala sortzeko dugun gaitasuna handituko dugu.

Errealitatetik (eta orokorrean, errealitate sentiberenetatik) gertu dagoen ekintza sozialerako dugun zaletasunaren bidez, heltze-prozesu honetan zehar, konturatzen **gara egunero geure lanari lotutako hainbat kontraesan aztertu behar ditugula**. Taldeen kudeaketa, langileak areagotzea, baliabideak bilatzea, erakundea osatzen duten eragileen arteko harremanak kudeatzea, justifikazioaren eskaerak, funtzionamendu era eta logika desberdinak dituzten beste eragile batzuekiko elkarlana, legegintza eskakizunak... dira askotan egoera konplexu eta askotan kontraesankorrak kudeatzera behartzen gaituzten hainbat egoera.

Praxiari lotutako eragilek gara, eta horregatik, betiere errealitatearen hatsarrea oinarri hartuz, eta kontraesanak kudeatu beharko ditugula onartuz, konplexutasun hori dagozkigun (asistentzia, arreta, salaketa, ikerketa, laguntza, eskubideen defentsa, etab. bezalako) funtzioen bidez ekarpenak egiten jarraitzea ahalbidetuko digun orekaren bidez kudeatzen jakin behar dugu.

Ekintzaren konkretutasunetik, partaide garen gizartearen eragile desberdinekiko harremanari lotuta kudeatzen dugu konplexutasun hori, geure izaerari jarraiki eraldatzaileak izango diren jardunbideak antolatuz eta proposatu nahi dugun gizarte ereduarekiko koherentea izango den erakundeen kudeaketa eta barne-bizitzaren bidez.

Sektorearen heldutasun-ziklo horretan **hainbat izan dira eraginkortasun gaitasuna areagotzeaz gain, geure errealitateak konplexuago bihurtzeko eskatzen eta oreka mantentzeko zailtasuna areagotzen ari zaizkigun prozesuak.**

Sektorearen etengabeko profesionalizatzea, ardura publikoko sistemen eraikuntzan eta ardura horri dagozkion hainbat zerbitzuren kudeaketan dugun eta izan dugun rola, beste eragile batzuek ez bezala edo beste eragile batzuekiko (bereziki erakunde publikoekiko) elkarlanean zenbait kolektiboren eskubideen eta elkarriketaren defentsan eta ordezkapenean izan dugun rola, herritarren partaidetzaren egituraketak jasandako garapena... lirateke prozesu esanguratsuenetako batzuk.

Prozesu horien markoan hausnartzen dugu zer esanahi duen **egiten ari garen bideak eta garapenak** arreta **jasotzen duten kolektiboei** eta orokorrean **gizarteari** dagokienez, **eta** zer esanahi duen **erakundeen kasuan** erakundeen barne-kudeaketaren eta defendatzen dituela dioen balioen artean **izaera eta koherentzia mantentzeak.**

Bestalde, geure kontraesanen kudeaketaz gain, **sektore gisa dugun erronka nagusietako bat gizarte-eredu nagusiaren aukerak eraikitzeko gai izatea** dela ikusi dugu. Horregatik, sektorearen barnean geure esku-hartzeen nahiz sortzeko lanean dihardugun gizarte-ereduak erakusten dituzten eta kide garen erakundeen eraikuntzaren bidez egituratzen ditugun proposamenei lotutako eztabaidak sortzeko gai izan behar dugu.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zurian biltzen genituen erronketan adierazi bezala, *“errealitatearen irakurketa partekatua, beharrak hautematea eta aukerak sortzea [...] bultzatu nahi ditugu etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko: desberdintasuna areagotzea, aldaketa demografikoak (biztanleri zahartzea, migrazioa...), familia- eta bizikidetza-ereduen dibertsifikazioa, aldaketak zaintza-ereduetan, aldaketak gizartearen partaidetza-ereduetan, gobernu-eredua, gardentasuna, informazioaren eta ezagutzaren gizartea eta abar.”*

Hona hemen geure proposamenaren izaera. Batetik, murgilduta gauden prozesuek dakartzaten **orekak eta kontraesanen inguruan hausnartzea helburu duen ikuspegia eta bestetik, gizarte-eredu desberdin baterako bidean aurrera egitea.**

Hausnarketa **esku-hartzean** (arrazoibideen eta jardunbideen eraikuntzan) eta **erakundeen barne-bizitzan** oinarritzen da, hau da, esku-hartze jardueretik eta arrazoibideetik koherentea izango den harremanen kudeaketan.

Arreta berezia jarri nahi diegu erakundeen kudeaketa eta esku-hartze jardunbideetan agertzen diren logikei, askotan, sektorearen logikekiko kontraesankorrak diren beste testuinguru batzuetatik eratortzen baitira. Jasangarritasun ekonomikoaren, burokraziaren eta lana bermatzearen edo lortutako emaitzen logika, laneko eskubideen logika, partaide garen edo

zerbitzatzen ditugun erakundeen logika eta erakundeen joera eta logikak askotan elkarrekin doazen logikak dira, baina zenbaitetan, geure lanari ekiteko trabak jartzen dizkigute.

Kontzientziazio bide horretan, **logika horietako bakoitzaren atzeko jakintzak ulertzea** izango da hurrengo urratsa. Logikek geure proiektuak norabide jakin batean bultzatzen dituzten moduan, logika horiek sustengatzen dituzten eta esangura ematen dieten jakintzak badaude. Badakigu gizarte-eredu nagusia bizitzan agertzen diren jakintza arrazionalen/teknikoen/zientifikoen/neurgarrien gailentasunean oinarritzen dela eta maiz, komunitateari, egunerokoari eta nahitaezkoari lotutako erakundeak garenez, ditugun jakintza esanguratsuenetakoak direla. Horregatik iruditzen zaigu interesgarria hausnarketa hori sakontzea.

Jarduera autokritiko horri ekiteko hainbat ekarpen bilatzeko asmoz, estu lotutako **gizarte-eredu nagusitik aldentzen diren proposamenak hautatu ditugu**. Gutariko askok horietan parte hartzen dugu eta jardunbide berriak proposatzen eta berrikusten laguntzeko ikuspegia zabaltzen lagun diezagukete. Beste era bateko hausnarketak eta jardunbideak sortzeko berregituratzen lagun diezaguten sektorearekiko kanpo-ikuspegiak (gizarte-mugimenduen eta hausnarketa soziologikoaren esparrutik gertukoak).

Deitu nahi ditugun ahotsek (feminismoarena, ekologiarena eta beherapenarena) gertuko ikuspegiaren bidez sektoreko **garapenaren**, une honetan Hirugarren gizarte sektoreko erakundeetan dauden **logiken eta jakintzen** (eragiten duten ekarpenaz baina baita eragiten dituzten kontraesanez) nahiz **horien laguntzaz gehitu ditzakegun jardunbide berri eta egokien prozesu nagusiak identifikatzen lagun diezaguketela** uste dugu.

HELBURUAK

- Helburu Nagusia:
 - **Sektorearen hausnarketa (auto)kritikoa egitea gertuko ikuspegiak (feminismoa, ekologia eta beherapena) gehituz**. Gaiak: hirugarren gizarte sektorearen inguruko ekarpena, sektorearen balioekiko koherentzia, azken urteetan gizarte-eraldaketa prozesuetan izandako rola (ardura publikoko sistemak eraikitzea, ordezkatzen ditugun edo geure ekintza jasotzen duten kolektiboen eskubideen defentsa, herritarren partaidetza egituratzea, beste era bateko gizarte-ereduak eta jardunbideak sortzea...) eta gizarte-eredu nagusiaren aldaera praktikoen eta arrazoibideen eraikuntza.
- **Hirugarren gizarte-sektoreko erakundeetan**, garatzen duten **ekintzan eta barne-bizitzan** (egituraketa, balioak, koherentzia, gizarte partaidetzaren artikulazioa...) **oinarrituz**.
- Jadanik erakundeen jardunbidean gertatzen diren eta jakintza eta logika berriak errespetatzen dituzten **erantzun zehatzak eta bestelakoak** bilatuz.

Hona hemen proposamenaren helburu zehatzak:

- Azken hamarkadetan hirugarren gizarte-sektoreak jasandako **garapeneko prozesu** nagusiak identifikatzea.

- Garapenean izandako **logikak** identifikatzea: zein diren sektoreko logikekiko bateragarriak eta zein eratorri diren beste testuinguru batzuetatik.
- Eskaintzen dizkiguten **aukerak** eta logikek eta horien arteko harremanek dakartzaten **zailtasunak edo kontraesanak** identifikatzea.
- Garatzen ari garen jardunbideak gidatzen dituzten **jakintzak** identifikatzea.
- Beste era bateko logikekin eta nagusiak ez diren jakintzen balioztatzearekin lotutako erakundeetan garatzen ari diren **jardunbide berri eta egokiak** identifikatzea.

HAUSNARKETATIK ERATORRITAKO ZENBAIT GALDERA.

Sektorearen garapena: ekarpenak, prozesu esanguratsuenak eta kontraesan posibleak.

- Zein dira hirugarren gizarte-sektoreak azken hamarkadetan (gizartearentzako, hartzailleak diren pertsonentzako eta erakundeentzako nahiz Hirugarren gizarte sektorea osatzen dugunontzako) izandako lorpen nagusiak? Zein dira ekarpen esanguratsuenak?
- Ekarpen horientzako (profesionalizatzea, erakundeen kudeaketa hobetzea, legegintzaren hobekuntza...) esanguratsuak izan diren zein prozesu gauzatu ditugu hamarkada horietan zehar?
- Izan baditugu, zein zailtasun eta kontraesan, izan ditugu garapenean zehar?

Hainbat logika

- Hirugarren gizarte-sektoreko erakundeetako jardunbideen barne-kudeaketarako edo esku-hartzerako hainbat logika¹ (*gertakarien edo ideien segida era koherentean edo kontraesanik gabe garatzen den metodoa edo arrazoibidea*) identifikatu ditzakegu?
- Badago gaur egungo hirugarren gizarte-sektoreko erakundeen kudeaketan logika kontraesankorrik? Eta esku-hartze jardueretan?
- Zein dira logiken artean kudeatu beharreko orekak?

Hainbat jakintza

- Zein dira gaur egun hirugarren gizarte-sektorerako jakintzarik esanguratsuenak (*ikasketaren edo esperientzien bidez barneratzen diren ezagutza sakon eta zabalen multzoa*)?
- Zer eskaintzen digu jakintza bakoitzak? Nola baldintzatzen gaituzte? Zein dira gehien eskatzen diren jakintzak? Eta ezkutukoenak?
- Badugu jakintza arrazionalengandik/teknikoengandik/zientifikoengandik / neurgarriengandik urruntzen den jakintzen garapen- eta berreskuratze-esperientziarik?

Hirugarren sektorea eta beste era bateko jardunbideak.

¹ Horiek dira identifikatu ditzakegun logikak. Erakundearen helburuaren logika, baliabideak lortzekoa, funtzio publikoarena, merkatuarena, enpresaren logikarena, arreta kolektiboena, unibertsaltasun logikarena, eskubideen defentsarena, partaidetzaarena, kudeaketarena, zaintzaarena, ebaluaketarena, instituzionala, ikusgarritasunarena, adierazgarritasunarena.

- Identifika ditzakegu hirugarren gizarte-sektoreko erakundeak garatzen ari diren eta gizarte-eredu berri baterako erreferenteak izan daitezkeen beste era bateko jardunbideak?

JARDUNALDIEN PROGRAMAZIOA.

SILVIA NAVARRO

Gizarte Ekintzaren eremuan garatu du ibilbide profesionala, batez ere Tokiko Administrazioan eta gerlutasuneko Gizarte Ongizatearen politketan, zenbait roletan eta funtzioetan. Gizarte Ekintzako zuzendaria teknikoa Bartzelonako udalean, Ekintza Teknikoari Laguntzeko eta Planifikazio Saileko arduraduna, Lurralde Ekintzako diziplina aritzeko talde bateko arduraduna eta oinarriko gizarte-langilea Badalonako Udalean. Curriculum zabala du irakasle gisa zenbait unibertsitatetan, eta argitalpen ugari ditu, haien artean nabarmentzen dugu "SABER FEMENINO, VIDA Y ACCIÓN SOCIAL" (JAKINTZA FEMENINOA; BIZITZA ETA GIZARTE EKINTZA).

Gaur egun Administrazio Publikoan duen lana "Rayela creActiva" proiektuaren barruan erakundeetako ikaskuntza- eta berrikuntza-prozesuetako bideratzale gisa egiten duen lanarekin bateratzen du.

ELKARRIZKETA

Eguna eta ordua

Urriak 25
BOLLINTAKO
EKITALDI ARETOAN
Zabaltze kalea 1, Bilbo
10:00etatik 13:00etara

EGITARAUA

10:00 - 11:15 **SILVIA NAVARRO**, JAKINTZA FEMENINOA, LOGIKA ETA EZAGUTZA BERRIAK HIRUGARREN SEKTORE SOZIALETIK PRAKTIKA ALTERNATIBOAK ERAIKITZEKO.

11:30 ELKARRIZKETA SILVIAREKIN ETA TALDEKO LANA.

13:00 AGURRA ETA AMAIERA.

Lehen jardunaldia.

10.00-11:15 **Yayo Herrero**. Hirugarren gizarte-sektoreko erakundeei feminismitik, ekologiatik eta beharpenetik egindako ekarpenak.

- Zer eskaintzen digute feminismoaren, ekologiaren eta beharpenaren ikuspegiek sektoreko erakundeen ekintza-jarduerei dagokienez? Eta erakundeen egituraketari nahiz gizarte-arrazoibideari dagokienez?
- Zer ekarpen eta kontraesan identifika daitezke errealitatearen hausnarketa-eredu horien bidez hirugarren sektoreak azken hamarkadetan izandako ibilbideari begiratuz?
- Zer jardunbide berri eta egoki gehi ditzakegu geure lanaren garapenera?

11.30 Etabaida Yayorekin eta talde-lana.

- Gizarte-arrazoibide nagusiak eta erakundeen jardunbidean eta barne-bizitzan dituzten eraginak. Kontraesanak eta aukerak.
- Esku-hartzeari eta barne-bizitzari dagokienez zein aukera erator ditzakegu feminismitik, beharpenetik eta ekologiatik?
- Erakundeen barne-bizitzaren eta esku-hartzearen jardunbide berriak eta egokiak.

13.00 Agurra eta amaiera.

2EN ELKARRIZKETA

YAYO HERRERO

FUHEMeko zuzendaria, Antropologia Sozial eta Kulturean lizentziatua, gizarte-hezitzailea eta Nekazaritzako ingeniari teknikoa, Pedagogia ikasketak Aurreratuak diploma. Hamasei urtez proiektu burua eta Ekolizpen, Kalitate eta Arriakuen Kudeaketako arduraduna izan da enpresa multinazional ugarietan.

Azken urteetan, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Fundazio Orokorrean sarbuteko Ingurumen Informazio eta Kaskeren Zentro Konplutentseko Dibulgazio eta Sareko Ezagutza Arloa koordinatu du. FUHEMeko lanarekin batera, UNEDeko Hezikuntza eta Sistema Konplexuen Mastereko tutorea da, eta gizarte-ekologiarekin eta feminismoarekin lotutako gaiak lantzen ditu.

EGITARAUUA

10:00-11:15 **YAYO HERRERO**. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEI EKARPENAK DESAZKUNDEAREN, FEMINISMOAREN ETA EKOLOGIAREN BEGIRADATIK.

11:30 ELKARRIZKETA YAYOREKIN ETA TALDEKO LANA.

13:00 AGURRA ETA AMAIERA.

EGITAKO

AZARDA 8
BOLLUNTAKO
EKITALDI ARETOAN
 Zabalbide kalea 1, Bilbo
 10:00etatik 13:00etara

Bigarren jardunaldia.

10.00-11.15 **Silvia Navarro**. Ezagutza femeninoa, hirugarren gizarte-sektoretik bestelako jardunbideak eraikitze logika eta ezagutza berriak.

- Zer logika dituzte euskarri orokorrean gizarte-ekintzako jardunbide eta arrazoibideek?
- Zer bila dezakegu logika eta jakintza anitz horien artean? Zein ekarpen eta mendekotasun eragiten dituzte?
- Zer modutara eraiki dezakegu gizarte-eredu nagusia beste era bateko logikei eta jakintzei dagokienez?
- Zer jardunbide berri eta egoki zehatz erabil ditzakegu horretarako?

11.30 Etabaida Silviarekin eta talde-lana.

- Logika eta jakintza nagusiak eta barne-bizitzan eta esku-hartzean dituzten eraginak.
- Zer aukera berreskura ditzakegu barne-bizitzari eta esku-hartzeari dagokienez beste era bateko logika eta jakintzetatik?
- Erakundeen barne-bizitzaren eta esku-hartzearen jardunbide berriak eta egokiak.

13.00 Agurra eta amaiera.

MIRADA Y EXPERIENCIAS DESDE DENTRO DEL SECTOR.

JUAN JOSÉ LACASTAK (PLENA INCLUSIÓN)
 ETA SEKTOREKO ZENBAIT ERAKUNDEK **ESPERIENTZIEK MAHA-INGURU**
 BATEAN KONTATUKO DIZKIGUTE PORPOSAMENAKO EDUKIEKIN
 LOTUTAKO PRAKTIKA ALTERNATIBO BATZUK (LASTER EMANGO
 DIZUEGU PARTE-HARTZE HORREN INGURUKO BERRI GEHIAGO)



Día y Hora

22 de Noviembre
SALÓN DE ACTOS
DE BILBILITA
C/ Zabalbide 1, Bilbao
DE 10.00 a 14 h

EGITARAUA

9:30 - 10:30 **JUAN JOSÉ LACASTA**. HAUSMARKETA ETA AUTOKRITIKA AZKEN HAMARKADA HAUETAKO
 SEKTOREAREN EKARPENEN INGURUAN

13:00 - 11:45 **ESPERIENTZIEK MAHA-INGURUA PRAKTIKATIK.**

12:15 **ELKARRIZKETA** JUAN JOSÉREKIN ETA ESPERIENTZIEK MAHAIAREKIN. ETA TALDEKO LANA
 AURREKO SAIOETAN JASOTAKO EKIN

ZEN ELKARRIZKETA

Gizarte-lanketa prestakuntza, Hirugarren Sektorean
 ibilbide profesionala desgaitasunaren inguruko
 erakundeetan garatu du, federazio bateko gerente
 gisa eta Plena Inclusión erakundearen zuzendari tekniko
 gisa. Valladolideko Unibertsitateko Erakundearen
 Garapeneko Aholkularitza Masterrean prestatutako
 aholkularia, aholkularitza izandako esperientzia
 Masterrean bertan irakasle-lanekin konbinatu du,
 unibertsitate ugarietako gradu ondoko beste ikastaro
 batzuetan aldaketarako gakoak emanez. Horrez gain,
 elengabe ikasten ariro izan da, arloko ikasleekin
 harremanetan zentratu eremutik Plena Inclusión-eko
 Aholkularitza Sarean eta Desarroko Humano y
 Organizazional erakundeak (DHO), beste batzuekin
 batera sortu zuena...

Hirugarren jardunaldia.

9.30- 10.30 **Sektoreko hizlaria.** Sektoreak azken hamarkadetan egindako ekarpenen, kontraesanen eta eraiki nahi dugun gizarte-ereduaren inguruko hausnarketa eta autokritika eginez.

- Zein izan dira azken hamarkadetan HGSak izandako garapeneko prozesu nagusiak?
- Zein izan dira ekarpen nagusiak?
- Zein izan daitezke kontraesan nagusiak eta berreskuratu beharreko orekak?
- Zein ardatzen inguruan eraiki behar ditugu erakunde eredu berriak eta zein ekarpen egin behar du hirugarren gizarte-sektoreak horretarako?
- Zer ikas dezakegu feminismoaren, ekologiaren eta beharpenaren markoen ekarpenei begiratuz?

10:30 – 11:50 Jardueraren bidez lortutako esperientzien mahai-ingurua. **(20 minutu esperientzia bakoitzeko)**

BEHIN-BEHINEKOA // BERTARATUAK ZIURTATZEKE

- **MUGARIK Gabe.** Ikusezinean zehar bidaiatuz **(hitz egin da baina ziurtatzeke dago)**
 - **EAPN.** Erakundearen esku-hartzea jasotzen duten pertsonen partaidetza. **(hitz egin da, baina ziurtatzeke dago)**
 - **Erakundea ziurtatzeke dago.**
 - **Emakumeen Bidea. (ziurtatua)**
- Zein dira erakundeetan egiten dugun esku-hartzeak eta erakundearen barne-bizitzari buruz izaten ditugun kontraesan nagusiak?
 - Zein markok eta zein hausnarketak eraman zaituzte erakundeetan jardunbide berriak txertatzera?

- Zein jardunbide berezi ekartzen ditugu edo ekar genitzake feminismitik, beherapenetik eta ekologiatic?
- Zein ikasketa barneratu dituzue jardunbide berri horiek garatzerakoan?

12.00 Atsedena

12.15 Eztabaida hizlariarekin eta esperientzia eta talde-laneko mahai-inguruarekin. Aurreko saioen harrera barne.

- Zein dira erakundeok jasan ditugun kontraesan nagusiak? Eta zein zaizkigu ezagunak bizitako esperientzietatik?
- Zein eratan konpontzen ditugu kontraesan horiek?
- Feminismoari, ekologiari eta beherapenari lotuta, geure erakundeetako barne-bizitza eta jardunbidea hobetzen lagun diezaguketen zein beste esperientzia ezagutzen ditugu?
- Gaur egun zer eskaintzen diote feminismoak, ekologiak eta beherapenak geure sektoreari?
- Zer ari gara jada egiten eta zer jardunbide berri eta egoki ekar ditzakegu erakundeen barne-bizitzari eta esku-hartzeari dagokienez?

13.30 Agurra eta amaiera.